

Noaia!!!

www.noaia.com



Oiartzun eta Hernanin ere
atez ate hasiko dira



Gero eta jende gehiago
Baxurde Krossean

Zure sagardoa egiteko behar
duzun guztia daukagu!



ERRAUSKETARIK EZ
LURRA BASERRIA HERRIA
BIZIRIK



Usurbilgo Baserritarren Kooperatiba
alkartasuna@alkartasuna.com
Ugarte industrialdea 12
943 36 11 14

Zenbat milioi € kostatuko zaigu erraustegia?

azpiegitura mota	milioi €
edukiontzia	0,570m
garbiguneak	2,4m
konpost planta	4,5m
hondakinen heltze planta	3,6m
San Markosen itxiera	13,22m
kontzientziazio eta sentsibilizazioa	3m
erraustegia (indar berreskuperarekin)	55,89m
GUZTIRA	83,21m

ERRAUSKETARIK EZ
LURRA BASERRIA HERRIA
BIZIRIK

Erraustegia egitea
soilik 83 milioi euro
edo
13.845 milioi pezeta
kostako zaigu

*Iturria: San Markosko
Mankomunitatearen Hiri
Hondakinei buruzko Plan
Integrala 2002-2016.

Osasun-tekniko batzordea



Albistea iruditan !!

Santuenean auzo giroa bizirik

Uda osoko asteburu euritsuena, aurtengoan Santueneko jaiekin batera egokituta da. Baina eguraldia aitzakia hutsa izan ohi da jaiak ospatzeko gogo dagoenean. Jai Batzordeko kideek jarritako karpa babesleku izan dute eta ateri izan den hainbat uneetan ospatzekoak ziren ekitaldietara herritar ugari bildu da. Benito Rosen txirrinda eta moto erakustaldira adibidez. Edota pasa den igande eguerdian herriko dantzariak eskainitako emanaldira. Ezin ahaztu Larraren emanaldia, herri bazkaria, mus txapelketa, edota euriak zapuztu ez zuen traka koloretsua. Jendea hara eta hona ibili da bai Santueneko jaietan, eguraldi kaxkarrari aurpegi ona jarrita.

Argazki gehiago noaua.com webgunean daude ikusgai, Argazkitegia atalean.



SANTUENEKO FESTETAN UMEEN EGUNA IZAN ZEN LARUNBATEAN, BAINA EGURALDIA MEDIO EZIN IZAN ZITUZTEN PUZBARRIAK JARRI. PUZBARRIAK DATORREN LARUNBATEAN HILAK 26, JARRIKO DIRA ESKUBALDIKO GUNEAN EGURALDIAK UZTEN BADU BEHINTZAT.

Noaua!!

NOAUA! Kultur Elkarte BORDABERRI 3 Eguzkitzaldea - 20.170 Usurbil
943 36 03 21 - elkarte@noaua.com - www.noaua.com

Jendaurreko ordutegia: 10.00-14.00 / 16.00-19.00 astegunetan

Elkarteko lehendakaria: Ana Aizpurua, elkarte@noaua.com
Aldizkari koordinatzailea: Imanol Ubeda, erredakzioa@noaua.com

Idazkaria: Alaitz Aizpurua, elkarte@noaua.com

Publizitatea: Bea Alda, publizitatea@noaua.com

Kolaboratzaileak: Lontxo Zubiria, Ane Manzidor, Maria Angeles Arruti, Ainhoa Salsamendi, Maria Jesus Urbiet, Nerea Korta, Aritz Gorriti, Jone Eizmendi, Ainara Arnaiz, Begoña Rekondo, Iñaki Agirresarobe, Ana Urdangarin, Eneko Harreguy, Iñaki Labaka, Koldo Huegun, Aloña Loidi, Imanol Goenaga, Agustín Esnaola, Alex Tello, Pako Agudo, Sara Lazkano, Nerea Aizpurua, Alazne Begiristain, Xabier Arregi, Edorta Agirre, Pello Aranburu, Ainara Uribe, Joseba Pellejero, Maider Makazaga, Aloña Pulido, Ainhoa Azpiroz, Aitor Landaluze, Josu Aranberri, Luis Aranalde, Nerea Zinkunegi, Idoia Torregarai. Denborapasak: LUMA, O.E.

Erredakzio kontseilua: Imanol Ubeda, Aritz Gorriti, Alaitz Aizpurua.

Informatika: Topaguneko informatika zerbitzua.

Banaketa: Lourdes Kamino, Olatz Rezola.

Tirada: 2.800 ale

Lege-Gordailua: SS-668-96 - ISSN: 1136-6818

Inprimategia: Antza. Zirkuitu Ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.

Aurkibidea

OIARTZUN ETA HERNANIN, ATEZ ATE **5. OR.**

INGEMARREN HIZKETAN HASI DIRA **8. OR.**

SAN PRAIXKUTAKO GEHIGARRI BEREZIA **9. OR.**

OIANA BLANCORI OMENALDIA **17. OR.**




Usurbilgo Udala



Euskal presoak



Euskal Herrira!



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

LATAILLADE    **ITURGINTZA**

GASA BEROKUNTZA MANTENIMENDUA ETA KLIMATIZAZIO INSTALAKUNTZAK

Aritzitxo 8, beheak - 943 365 348 - 609 888 021

teilatuak eta fatxadak
JOSE AIZPURUA UNANUE

Obaba kalea 29 - ASTEASU
943 69 68 52 - 620 800 186



NEREA ZINKUNEGI

Jasan jantzan!!!

Europa aldetik omen datoz Mugikortasun Jasangarriaren Astea delakoa antolatzeako poltsak diruz beteta. Ditxosozko poltsak ordea, paper birziklatuz egindakoak, plastikozkoak edo gantxiloz egindakoak diren ezin jakin. Ezta hegazkinez, internetez edo bizikleta gainean ekarri dituzten ere.

Garraio publikoa erabiltzeko deia, aholkua, entzuten da nonahi egunotan, urteko gainontzeko egunetan baino merkeago jartzen dute gainera, bizikletaz ibiltzea hobesten da eta, kasurik onenean, oinez, zergatik ez.

Aldi berean, auto berria erosteko martxan jarri diren laguntza ekonomikoen berri jasotzen dugu handik eta hemendik, industria sektore honek "porrot" (prrruum prrruum) egin ez dezan.

Personalki, lotsa puntu bat sentitzen dut egunero

lantoki ateraino autoz gatozen irakasleok, urtero lez, Aste Berde honetako ostiralean bizikletak eta ikasleak beraien bizikletekin hartu eta Txokoalderainoko buelta egiten dugunean. Ostiral horretan bertan jai txiki bat ospatuko da herrian txokolate eta buruhandi eta guzti, azken hauek korrika ibiliko dira, eskerrak!! Bi usurbildar zoriontsuago izango dira eguna amaitzerako zozketa bitartez bizikleta bana tokatuko zaielako.

Azkenik, astea "jasangarriagoa" izan dadin, ostiral arratsaldeko jaialdian parte hartuko duten ikastolako DBH 4ko ikasleek paper birziklatuz egindakoak, plastikozkoak edo gantxiloz egindakoak diren ez dakigun poltsa horietatik diru kopuru polit bat jasoko dute ikasturte bukaeran autobusez egingo duten bidaia ordaintzen laguntzeko.

Bejondeigula!

Luis Aranalde - Aitor Landaluze - Imanol Ubeda - Aritz Gorriti - Nerea Zinkunegi - Maialen Unanue - Joxe Piñas - Unai Agirre - Idoia Torregerai

Bazkaria Atxegan, Gure Pakeak antolatuta

80 urte bete dituztenak zoriondu nahi ditu Gure Pakea elkarteak. Bazkaria urriaren 4an izango da Atxegan. Baina irailaren 25a baino lehen erosi behar da bazkarirako txartela. Artzabalen eskura daiteke txartela, 35 eurotan. Edo Euskadiko Kutxan ingresoa eginez:
3035 0140 31 1401018416.

Arrate zahar egoitza, zabalik berriz ere

Udan itxita egon da baina abuztu amaieran ireki zuten berriz ere Aginagako Arrate zahar egoitza.

Astelehenetik igandera goiz eta arratsalde zabalik egongo da, eguerdian izan ezik. San Praixku jaiak datorren astean hasiko dira eta festetan ere zabalik izango dira egoitzako atear.

Larunbatean, eskubaloi taldearen bilera irekia

Ursbil KEko eskubaloi taldeak martxan dira. Ikasturteko hasierako bilera larunbat honetan egingo da, goizeko 11:00etan Sutegin.

Eskubaloi taldeko kideek deialdi irekia dela adierazi dute: "gonbidatuak daude jokalaria, guraso eta herriko eskubaloian interesatuta dauden guztiak".



www.noaua.com

USURBILGO ATARIA

Hernanik eta Oiartzunek ere atez atekoaren aldeko apustua egin dute

Usurbilen duela sei hilabete hondakinen kudeaketaren alorrean ekindako bideari udalerrri gehiago batuko zaizkio datozen hilabeteetan. 2010eko udaberri-rako Hernanin eta Oiartzunen atez ateko bilketa sistema martxan jartzeko asmoa iragarri zuten hedabideen aurrean bi udalerrietako alkateek, Usurbilen sistema bera abiatu zenez urte erdia bete zen egun berean.

Usurbilen egin bezala, aipatu bi herrietan udazken honetan informazioa partekatu eta sistema berriaren ezaugarriak zehazteko herritarrei zuzendutako parte hartze prozesua hasiko dute. Pasa den asteko prentsaurrekoan adierazi dutenez, Gipuzkoako beste hainbat udalerrri hondakinen kudeaketarekin zer egin erabakitzeko azterketa fasean dira egun; Debagoieneko Mankomunitatea, Lezo, Lasarte-Oria eta Urnieta.

Atez ateko bilketa sistema Usurbilen martxan jarri zenetik sei hilabete bete ziren irailaren 16an. Hedabideen aurrean jakinarazi moduan, emaitza ezin hobekin; %80ko muga gainditu baitu atez ateko bilketak, Usurbilen.

Baikor agertu ziren prentsaurrea bertaratutako ordezkariak; Xabier Mikel Errekondo, Marian Beitialarrangoitia eta Aitor Etxeberria, Usurbil, Hernani eta Oiartzungo alkateak hurrenez hurren; Pedro Lasagabaster Debagoieneko



EZKER ESKUIN, SAN MARKOS ETA DEBAGOIENA MANKOMUNITATEETAKO ORDEZKARI ETA GIPUZKOAKO ZENBAIT UDALERRITAKO ALKATEAK.

Mankomunitateko lehendakari orde eta Eskoriatzako alkatea; eta Ricardo Ortega eta Jordi Colomer, San Markos Mankomunitateko lehendakari eta teknikaria hurrenez hurren.

“Donostiak ere egin dezake”

Igaro den uztailean Hernaniko udalbatza hondakinak atez ate biltzearen alde agertu zen. Datorren udaberriari egitasmoa errealitate bilakatuko da, alkateak adierazi zuenez. “Apostu sendoa egin dugu. Herritar bakoitzak egin beharko du errealitate hori, eta guk haiekin”, adierazi zuen Marian Beitialarrangoitia. 19.000 biztanletik gora dituen udalerrri bat halako erronka bati aurre egiteko gai bada, bere esanetan, “tamainak ez du garrantzirik, borondatea eta lan egite-

ko gogoia dagoenean”. Zentzu horretan, Gipuzkoako hiriburura begira jarri zen; “Donostiak ere egin dezake”, zioen Hernaniko alkateak. Modu horretan gaitzetsi nahi izan zituen atez ateko bilketa udalerrri txikietarako soilik baliagarria dela diotenen adierazpenak.

Usurbilen burututako lana baliagarri suertatuko zaiela gaineratu zuen, Oiartzunen bezala. Bertako alkateak Usurbilgo Udala zoriondu zuen. Iragarri zuenez, herrian burutu duten azterketa aste honetan udal batzordean lantzekoak dira. Helburua askoz jasangarriagoa eta ingurumenarekin errespetu handiagoa duen sistema abian jartzea da, Aitor Etxeberriaren esanetan, “egungo ereduak ez baitu etorkizunik”.

Haginak ondo dabiltzanean, sabela poz!

USURBILGO HORTZ KLINIKA

FERNANDO PEREZ-MOSSO NENNINGER
ANTONIO BERNAL RUIZ DE OÑA

Kale Nagusia 10, 1.C4
Tlf 943 37 08 78

20170
USURBIL

txirriStra
KONTSEJUZARRA 13
943 360 466

pintxoak
ogitartekoak
plater konbinatuak

TABERNA

SANTUENEA

PAKO AGUDO

Datorren urtekoen zain



Gutxiago geratzen da datorren urteko festetarako. Aurtengoak euri artean joan zaizkigun arren, orokorrean festa dotoreak izan dira. Euriari beldurra? Santuenean behintzat ez dago horrelakorik eta festei hasiera emateko ostiralean 13.000 globo bota ziren urez beteta, “agujetak” izateko adina.

Gaueko kontzertuak ere tximistak atera zizkion zeruari. Baina euriaz ez ezik, musikaz blai bukatu genuen. Euria ez zen aitzakia izan plazara atera nahi ez zuen basurdea aise harrapatzeko.

Larunbatean bai, euriak menperatu gintuen eta haurrentzako prestatuta zegoen festa ezin izan genuen aurrera eramanean. Dena dela, pasa den larunbatean jarri ezin izan ziren puzgarriak datorren larunbatean izango dira Santueneako eskubaloi gunean, beti ere euriak uzten badu behintzat.

Eta zer esan larunbateko kantu afariak? Kantatzen haste-rako euria hasita zegoen beraz ez zen gure errua izan. Nahikoa abestu ondoren dantzarako aukera izan genuen DJ Larrarekin, aurtun “gogo” eta guzti izan genuen gainera. Arratsaldean berriz Benito Rosen ikuskizun aparta,



auzoko erriberako piper dastaketa eta gauean berriz ia auzoa txikitu zuen traka.

Bukatzeko, jai batzordearen izenean eskerrak eman nahi dizkiet Tragoxka tabernari, zaharren egoitzari, Esnaola janari dendari, Juanjo Arrospideri, Iñaki Urrozi eta nola ez Martxeli gurekin egon delako jaiak hasi direnetik azkeneko trakaraino eta gurekin egongo delako, bai orain eta bai beti.

KALEZAR

ALOÑA PULIDO

A gripea



Agripea sortzen ari den paranoia izugarria da. Baina dena esan al zaigu gripe honen inguruan? Gogoratzen al duzue hegaztien gripea? Ba hegaztien gripea 1996. urtean sortu zen nahiz eta Espainiara 2006an iritsi. 1996. urtean AEBetan Tamiflu izeneko medikamendu bat sortu zuten eta gripe honekin kutsatutako jendeak medikamendu hau hartu zuen. Hala ere bada datu bat inori kontatu ez zaiona: Tamifluak bigarren mailako efektuak ditu eta Japonen paralisia eta paraplegiak honen ondorioetako batzuk izan dira.

Gaur A gripea agertu da eta jada komunikabideetan sendagai hau iragartzen ari dira gripe honen sintomak ekiditeko. Ez al dira gurekin jokatzeko ari? Informazio falta dago gizartean eta batzuk honetaz aprobeztatzen dira, esate baterako, farmazia sektoreko enpresak.

Aldiz, urtero jende ugari hiltzen da beste gaixotasun batzuen ondorioz (esate baterako, urtero milioi erdi pertsona hiltzen dira munduan ohiko gripearen ondorioz eta zer esanik ez malaria, beherakoa, neumonia eta abarren ondorioz) eta ez dugu horren berririk izaten.

Hau guztia esanda espero dut istorio hau azkar bukatzea, guztion mesederako izango baita.

ATXEGALDE

AINARA BORDAGARAI

Aparkatzeari tamaina hartzen

Duela hilabete jai giro betean murgildua zegoen auzoa, egunotan berriz Santueneko jaien oihartzuna baino ez zaigu iritsi. Eta laster, urrunagotik, Aginagakoena. Amaitu da uda, blai bukatu ere, eta itzuli gara eguneroko zereginetara; ikasleak gora eta behera, besteok lanera, autobusen joan etorria...Eta autoa hartu behar duenak, goizean goiz hondakin zatia etxe atarian zintzo-zintzo utzi eta errepidera. Errutina kontuekin jarraituta, eguerdi edo arratsalde partean lantokitik auzora bueltatuz gero, autoa hor nonbait aparka dezakegu. Aldiz, iluntzetik aurrera aparkaleku faltan gaude eta asteburuetan, auzotar gehienok jai dugunean, zer esanik ez.

Bat baino gehiago bere bizileku ingurutik osteratxo bat egin ostean, kale bat edo bi gorago edo beherago aparkatzera ohitu da jada. Udako oporraldia igarota gainera, espaloiak aparkaleku inprobisatuetan bilakatu dira berriz ere. Batzuetan, egia da, erosotasuna gustuko dugunez etxetik metro gutxira aparkatu nahi izaten da, baina bestetan aldiz autoa egoki uzteko Kiroldegi edota kaxko aldera joan beste alternatibarik ez da izaten. Zein ote irtenbidea?



AGINAGA

LONTXO ZUBIRIA

Zorionak Iñaki!



Urte batzuk badaramatza arraun munduan, aurretik beste kirol batzuetan ere nabarmenduta, Hernaniko ekipoarekin futboleant, esate baterako. Eta ur gainean hainbat talderekin ahaleginak egin ondoren, azkenean lortu du arraunaren munduko txapelketa omen den sariarekin etxera itzultzea, Donostiako Kontxako banderarekin alegia. Urteak pasa ditugu Kaikuren ia berririk izan gabe, maila txikiagotan zebilelako. Baina Ortzaikako Joxe Luis Korta azaldu eta bigarrenengo denboraldian hortxe eraman du bere txalupa olatuaren gainean ia txapelketa guztiak irabaziz. Egia da Kortak ez dituela horrelako apustuak dirurik edo mailarik ez dagoen klubarekin egiten, baina egia ere bada beste tekniko asko baldintza berdinekin ez direla bere mailara iristen. Orain ospatzeko garaia iritsi zaionez, zorionak bidaltzen dizkiogu Errastiko Iñakiri. Zorionak, Iñaki. Ondo ospa ezak lagunekin, klubekoekin eta, nola ez, familiarekin.

Arraun kontuekin jarraituz, San Praixkuak ere gainean ditugula, aurten ere estropadarik ez da faltako Aginagan urria hasieran. Bertako uretan izango ditugu azken bi urte hauetan nagusi izan ditugun oriotarrak eta beraiekin lehia-



tuko dira bi Pasaia, Hondarribia eta, nola ez Aginaga eta Usurbil. Aidanean, aurten ere bandera erriotan behera marearekin batera Orio aldera joateko arrisku handia omen dago. Hala gertatuko balitz, gure mutilak osterata Usurbili irabaztearekin konforme. Festak gainean ditugunez, aupa San Praixku eta aupa Aginaga!

KALEBERRI

ENEKO HARREGUY

Zein begiekin begiratzen diogun



“Nire umea goizean goiz jaiki, ikaragarri kostatzen zaio eta letxe txarrean altxatzen da, komu-nera eraman, egin beharrekoak egin, eskuak eta musua garbitu eta gosatzeko eseri, esneak ez duela kolakao nahikoa, gehiago botatzeko, bestela ez duela gosalduko, logelara joan eta jantziarazi, ikastolako motxila egin, prestatutako hamaiketako kontuz eramateko gogoratu, eta hala ere, alferrik. Ikastolatik jaso, meriendatzeko gazta eta urdaiazpikoa ez duela jan nahi, horrekin burruka izan, pianora eraman korrika batean, handik atera eta esan dizut ballet-a egiten duela?, ba, balletera eraman, ah!, eta balleta egiteko arroparekin beste motxila bat egin, handik etxera, etxeko lanak egitera, ez daukala etxeko lanik, zerbait izango duela, erreparatzeko bestela, afaria prestatu, orain ez duela afalduko, izan ere, marrazki bizidunak ikaragarri gustatzen zaizkio eta telebistaren aurrean jarri eta ez dago mugituko duenik, beste burrukatxo bat, oheratu, lokartu arte ez joateko bere ondolik... hau oso gogorra da”.

Behin, herrialde behartsu batean, bixitari baino ez nintzelarik, han ikusi nuen neskato bat harkaitzez josiriko bide malkartsu eta gogor batean, sorbalda eta gerritik loturik eramaten dituzten oihaltorietako batean, zama astuna zeramala. Eta halaxe esan nion:

-Hori da pisua daramazuna bizkar gainean.

Begiratu eta esan zidan:

-Ez, ez daramat pisurik, nire anaia gaztea daramat.

“Baina hau oso polita da”.

ZUBIETA

PELLO ARANBURU

Garapen haizeak

Ufaka ari dira garapen haizeak Zubietan. Batetik, Lasartetik herrirako sarrera adabakiz jositako gurdibidea izan zena hiribide ederra bihurtuko zaigu, eta bestetik, hondeamakinak bizi-bizi ari dira pistak zabaltzen Zubietako gainetan errauskailua non kokatu aztertze. Gainera autobusak lotzen gaitu inguruko zibilizazioarekin. Herri modernoa gara.

Modernitatea eta garapena (desarrollo gaztelaniaz). Horra hor bi hitz milaka gauza on eta milaka deskalabru ezkutatzeko. Hainbeste, non jarri behar izan dizkioten hainbat adjektibo: jasangarria, eutsigarria... (Hau egarria!) benetan etsigarria.

Protestan ibili gara bai Donostian, bai Zubietan - oraindik ikusgai dituzue pankartak Artzabaletan- baina ezer ez, kasurik ez. Garapen jaunak eta Modernia andre-ak gor xamarak dira eta egunotan beste zeregin batzuk dituzte: Zinemaldian dabilta.

Bukatze, hala ere, beste zertxobait aipatu nahi dut, alaiagoa -Krisi jaunak eragozten ez badit-. Urriaren 12an Euskal jaiak ospatu nahi ditugu Zubietan, joan den urtean egindakoaren ildotik. Ondo pasatzeko eguna: kantuan, jolasean, dantzian... Eta bazkaria Araetan. Txartelak laster jarriko dira salgai Barazarren.



Elkarrizketak hasi dituzte Ingemarreko langileen ordezkariak eta zuzendaritzak

Ingemarrekoak mobilizaziotan izan dira egunotan. 20 kalera-tze izan ziren udan eta geroztik enpresa komiteak negoziatorako dei ugari egin dizkio Ingemarreko zuzendaritzari. Badirudi gauzak bideratzen hasi direla; izan ere, sindikatuen ordezkariak eta lantegiko zuzendaritzakoak biltzen hasiak dira jada.

Azken egun hauetan, hainbat protestaldi egin dituzte Ingemarreko langileek. Badirudi protesta horiek baliogarri izan direla; negoziazio prozesu bati ekin diezaioke aste honetan bertan. Lehen pausoa eman da behintzat: aste-arte honetan bilera batean elkartu dira enpresa komitea eta zuzendaritza.

Herrian dauden gainontzeko enpre-

sa askotan ere, erregulazio egoeran dira eta, krisi ekonomikoak eraginda, lantegi asko egoera larrian daude. Honen aurrean, manifestazioa egin zen pasa den ostiralean, LABek deituta, "Usurbilen alarma gorria" lemapean. Azken hilabeteotan, bereziki industria sektorean pairatzen ari diren egoera salatu zuten.



AZKEN EGUNETAN LANGILEAK KALERA ATERA DIRA. MOBILIZAZIO UGARI EGIN DITUZTE INGEMARREKOEK. LAB SINDIKATUAK, HERRI MAILAKO MANIFESTAZIOA DEITU ZUEN PASA DEN OSTIRALEAN.

Urriaren 1ean, Kantu Taldearen bilera

Usurbilgo Kantu Taldea martxan dugu berriz ere. Urriaren 1ean, ostegunarekin, Udaregi Ikastolan biltzeko deialdia egin dute. 19:30ean hasiko den bilera hori irekia da, beraz, lehen aldiz Kantu Taldera bildu nahi dutenek atea zabalik dituzte. Iaz bezala, Susi Eloseggi izango da irakaslea.

1983ko kinto afaria antolatu da

San Praixku jaietan 1983. Surtean jaiotakoak bilduko dira. Afaría Aginaga sagardotegian izango da, urriaren 10ean. Bi hitzordu jarri dira; lehenengoa, 19:30ean Irratin. Bigarrena, 21:00etan Aginaga sagardotegian bertan. Izen ematea zabalik dago Ardi Beltz garagardotegian jarri den zerrendan.

Manifestazioa deitu da larunbat honetarako

Irailaren 27a Gudari Eguna izango da. Arrazoi hori tarteko, manifestazioa egingo da Usurbilen baina bezperan, irailaren 26an larunbata, arratsaldeko 19:30ean hasita. Joxe Martin Sagardiaren plazatik abiatuko da manifestazioa. Urteroko buelta egingo da: udaletxetik fabriketara, eta handik Kalezarrera.

izAgirre
ELEKTRIZITATEA
943 36 50 95-609 06 81 11
izagirreletrizitatea@hotmail.com
Goiz argi etxea 37, KALEZAR

**BENTA
TABERNA**
Oilasko erreak
Ogitartekoak
San Ignacio 1, behea
USURBIL 943 36 93 05

Patri Jatetxea

K/nagusia 14. ☎ 943 362 725

Andoni Errazkin
Xukin
igeltseritza orokorra
Barne eta kanpoko lanak
USURBIL
☎ 663 08 76 71 • 943 24 34 65

N!!!

gehigarri berezia
Sanpraixku Aginaga

09





Kontuan hartzekoak



Urriak 2 ostirala. Pilotako finalak.

Azken aste hauetan, txapelketa ezberdinetako kanporaketak jokatu dira. Jaietan, ordea, finalen lekuko izango da Aginagako pilotalekua. **Ostegun arratsaldean, pala txapelketako finala** jokatu da eta **ostiralean, 22:00etatik aurrera, esku pilotako finalak.**



Urriak 3 larunbata. Oilasko biltzaileak.

Bi asteburutan zehar ospatuko dira San Praixkuko festak. Oilasko biltzaileak **jaietako lehen larunbatean ibiliko dira** baserriz baserriz. Egun osoan ibiliko dira eta afalorduan hartuko dute atseden Etxebeste tabernan egingo duten afarian.




Urriak 3 larunbata. Estropadak.

Duela gutxi berreskuratu zen estropada egiteko ohitura. Herri arteko lehia izanik, giro ederra izaten da bateko eta besteko zaletuen artean. Irudian dituzue Aginagakoak. Estropada arratsaldeko 16:30ean hasiko da.



Urriak 4 igandea. Herri kirolak.

Arraunetan izaten den lehia herri kirol saioan errepikatuko da. Baina herri kirolean, **Aginaga eta Orio izango dira aurrez aurre arituko direnak**, arratsaldeko 18:00etan hasita. Ondoren, sardina eta sagardoa denentzat.

**Urriak 9 ostirala. Haurren eguna.**

Goiz partean hasiko da joko-festa. Arratsalde partean, haurrak zein nagusiak liluratuta uzteko moduko saioa eskainiko du **Txan magoak**. Buruhandiak ere ibiliko dira arratsalde partean.

**Urriak 11 igandea. Poteoa, bazkaria, antzerkia.**

Eguerdi partean, **Kuxkuxtu txarangakoak** ibiliko dira poteoa alaitzen. Herri bazkarian ere arituko dira kantuan. 18:00etan, ordea, herri antzerkia hasiko da. Aginagakoak izango dira antzezleak...



Zummeta

Jatetxea

Ondo pasa Sanpraixkuak!

Astelehenetik igandera

- **Menu Berezia 20€** Aukera ederra
- Degustazioko menua
- Karta

Astelehenetik ostiralera

- Eguneko menua

Igandetik ostegunera

- Gaez itxita
(Erreserba eginda zabaltzeko aukera)



Txokoalde auzoa, 34 · USURBIL · ☎ 943 362 713



Horacio Argarate parrokoa

Aginaga utzi eta Arrasatera doa

San Praixku eguna Aginagan igaro ondoren, Arrasateko parrokiara abiatuko da azken urteotan, herrian parroko lanetan jardun duen Horacio Argarate. Esker hitzak baino ez ditu, aginagar eta usurbildarrentzat. Burutu duen lana eskertu asmoz, bi agur bazkari antolatu dizkiote.

N. Orain arte kargu desberdinak izan dituzu zure gain.

H. A. Azken urteotan, Aginagako parrokoa, Salvatore parrokiako apaiz laguntzailea eta Lasarte-Oriako San Pedroko apaiz laguntzailea izan naiz.

N. Agur bazkariak antolatu dizkizute, omenaldi gisa. Zer oroitza-pen daramatzazu usurbildar eta aginagarrez?

H. A. Hunkigarria da, ez nuen halakorik espero. Nabarmentzen nuen jendearekin tratu erraza nuela. Aginagak bere txikitasunean badu nortasun berezi bat, naturalagoak dira onerako eta txarrerako. Diren bezalakoak agertzen dira. Aginagako parrokia errazago eramaten da, txikiagoa da, eta jendeak nahi eta behar duena berehala ikusten da. Usurbilen haur, gaztetxo eta guraso askorekin dut harremana. Ezustekoa izan dut, bukaera modu honekin. Betiko esaldia da, baina nik Usurbil bihotzean daramat. Usurbilek niri asko eman dit. Eibarretik Usurbil bezalako herri batera etortzeak burua, bihotza eta dena aldatzen ditu. Oso aberastuta noa ni hemendik.

N. Apaiz berri bat dator. Ez da erraza ordezkoa bilatzea, apaizgai falta omen dago eta?

H. A. Horregatik egokitu zait niri Arrasatera joatea. Hona datorrena hernaniarra da, 35 urtekoa, Ibon Alberdi. Zortzi urte daramatza Oreretan apaiz gisa. Oso pertsona jatorra da eta ezagutzen joango zarete. Apaizgoaren adina oso zaharra da, leku asko eta apaiz gazte gutxi daude. Ez dirudi egoera aldatuko denik epe motzean behintzat.

N. Herritarrak agurtzeko garaia da. Zer esan nahi diezu?



ZIORTZATIK AGUR BAZKARIA ANTOLATU ZAID LARUNBAT HONETAN SAIZARREN. TIKETAK BORDATXON ESKURA LITEZKE, IRAILAREN 25ERA ARTE; 16 URTERA ARTEKOEK 12 EUROTAN, ETA HELDUEK 30 EUROREN TRUKE. IGANDEAN, ALDIZ, MEZA BEREZIA ESKAINIKO DU AGINAGAN, EGUERDIKO 12:00ETAN. ONDOREN, BAZKARIA ANTOLATU DA AGINAGA SAGARDOTEGIAN.

H. A. Aginagan kontrol sozial handiago dago, denek dute elkarren berri. Zoritzarrez hori ez dute erabiltzen batasun handiago izateko. Aginagak merezi du beraien artean hobeto moldatzea. Bakoitzak bana banan hartuta, goi-mailako jendea da, bihotz zabaleko eta onekoak dira. Aginagatarrek elkarren arteko lotura gehiago zaindu beharko zutela uste dut. Aginagak askoz gehiago irabaziko luke, denek batera bultzada egingo balute. Eta usurbildarrei, taldeetan ibili direnei, egin den lanari eusteko. Usurbilek badu bere xarma niretzat, eta jarrai dezala euskaltzale izan nahian, herri militante bat izaten. Dagoen herri proiektua aurrera eramaten jarraitu behar dela uste dut. Esker mila denei, nirekiko hain modu hunkigarrian hurbildu direnei. Hau ez da agurra, gero arte bat baizik. Oraindik, askotan elkar ikusiko baikara.

“Organoaren Lagunak taldeak lan bikaina egin du arlo guztietan”

NOAUA! Organoaren mendeureneko ospakizunak gertutik jarraituko zenituen.

Horacio Argarate.

Horretarako erakunde berri bat sortu zuten Organoaren Lagunak, lan bikaina egin dute arlo guztietan; finantziario edota zaharberritze lanetan.

Haiek lortu dute, Donostiako Musika Hamabostaldiko kontzertu bat hemen ospatzea. Orain jabetu gara denok zer bitxia genuen Usurbilen. Pena oraindik bukatu gabe dagoela.

Angulas Mayoꝝ, s.l.

AGINAGAKO ANĜULAK
BEREZKO BIBEROAK



Toki Berri, z/g
Telf: 943 36 15 94
Faxa: 943 36 25 73
AGINAGA

ONDO PASA SAN PRAIXKUAK!



José María Larburu
Garraiatzailea

garraioak
larburu
gruarekin ere egiten dugu lan

Larzusta z/g. AGINAGA

☎ 943 36 17 35 • 656 791 277

TXAPARTEGI

harategia



bertako haragia

ondo pasa jaietan!

AGINAGA • 943 361 907

ondo pasa jaietan!



URDAIRA

Sagardotegia

Sagardo naturala



Aginaga
943 37 26 91
630 777 346



Jai egitaraua

Urriak 1, osteguna

19:00 Pilota partidak
Ezinduen erakustaldia
Emakume pilotari erakustaldia
Aginagako VII. Txapelketako
pala finala.

Urriak 2, ostirala

18:00 Jaien hasiera
etxaferu eta buruhandiekin.
22:00 Aginagako
VII. Txapelketako esku
pilotako finalak.
00:00 Kontzertu bikaina Eliza
zaharrea. Odolaren mintzoa,
Hotzikara, 3gabe2.

Urriak 3, larunbata Oilasko biltzaileen eguna

6:00 Oilasko biltzaileen
gosaria.
6:30 Oilasko biltzaileen
irteera.
16:30 Estropadak.
18:30 Gorritiren showa. Bere
animaliekin une atsegin bat
pasatzeko aukera izango dute
herriko gazteenek.
21:00 Oilasko biltzaileen
afaria Etxebeste tabernan,
goizean galdutako indarrak
berreskuratzeko.
24:00 Laiotz taldearekin
dantzaldi paregabea.
Atsedendian: Maleta
karrera izango da.

Urriak 4, igandea San Praixku eguna

9:00 Tiro platoa.
11:00 Meza nagusia bi
bertsolariz alaitua. Ondoren,
hamaiketako izango da
herriko jubilatuentzat
Aginaga sagardotegian.
18:00 Aginaga eta oriotarren
arteko lehia herri kiroletan.
Ondoren, sardin eta sagardo
dastaketa. Aldi berean, XXVII.
Toka Txapelketa.

Urriak 9, ostirala Haurren eguna

10:00 Haurren jokoak.
13:00 Umeentzat bazkaria
Arrate egoitzan.
Bazkalostean, jokoan
jarraipena eta sari banaketa.
17:00 Txan
magoa.
Ondoren,
txokolatada
denentzat eta
buruhandiak.
19:30 "Mendizaleak
aurrera..." Koke Lasa
mendizalearen eskutik Ama
Dablam mendiaren inguruan
prestaturik duen ikus-entzu-
-nezkoa izango da ludotekan.
21:00 Kostillada eliza
zaharrea.
23:00 Aloña eta Maitane
trikitarrien saioa eliza
zaharrea.



Urriak 10, larunbata

16:00 XXIX. Mus Txapelketa
herrikoia (izen ematea
15:30ean).
18:00 Buruhandiak.
19:30 Bertso saioa
bertsolari
hauen eskutik:
Amets
Arzallus,
Iker Zubeldia,
Angel M.
Peñagarikano,
Iosu Oiartzabal.
24:00 Abiba diskojarekin
mota guztietako musikaz
gozatzeko aukera izango
dugu.



Urriak 11, igandea

12:00 Landarbaso
abesbatzaren kantaldia elizan.
13:00 Herri poteoa iparralde-
ko Kuxkuxtu txarangarekin
euskal kantuak abestuz.
14:00 Herri bazkaria.
Bazkalostean, berriz ere
kantuan jarduteko aukera.
18:00 Herri antzerkia,
herritarrak izango ditugu
antzezle oraingoan.
24:00 Tximeleta taldearekin
dantzaldia.
Atsedendian, BTK taldea-
ren eskutik batukada.
Ondoren, DJ Büru eliza zaha-
rrean eguna argitu arte.

ETXEESTE Jatetxea

Eguneko
bazkariak

ondo ibili jaietan !!

 943 36 27 40



Ondo pasa
San Praxikuak!!

Mutiozabal Etxea, 17 zenb.
20170 AGINAGA (Gipuzkoa)
Tel.: 943 361 081
Faxa: 943 365 704
www.atxega.com
atxega@atxega.com

AGINAGA

SAGARDOTEGIA

Urte osoan txotxetik

Estrata kalea, 7

Aginaga auzoa, USURBIL

Tel. eta faxa: 943 36 67 10

Tel.: 943 37 06 68

a.sagardotegia@aginagasagardotegia.com





A. Bruño e Hijos S.L.

ondo pasa Sanpraixkutan!

ANGULAK ETA ITSASKIAK

Menu ezberdinetako
aurrekontuak egiten ditugu.

Egin ezazu zure eskaera telefonoz:

☎ 943 37 27 88 Usurbil

Legarde Kaleko Zumartegi.



Ganbak, langostinoak, karraketak,
nekora, lanpernak, buia, zentolla,
mixera, kamaroiak, olagarroa, ardo txuria

65€

ANGULAS MANTEROLA



*San Praixku jai
zoriontsuak opa
dizkizuegu
aginagar guztioi!*

Telf: 943 36 07 77 Faxa: 943 36 35 85
Aginaga

Udalaren eta Kirol Patronatuaren omenaldia jaso du Oiana Blancok

Munduko txapeldunorde postua eskuratu zuen abuztuaren Oiana Blanco Usurbilgo judo taldeko kideak, Rotterdamen (Holanda) jokatu zen Munduko Judo Txapelketan. Ordutik, egindako lanaren emaitza ospatzen ari da. Azken aldiz, igaro den astean, Usurbilen bertan.

Horregatik, irailaren 17an harrera berezia prestatu zion Udal Kirol Patronatuak oriotarrari. Kiroldagiko kafetegiko eraberrituan luntx bat prestatu zioten, egindako lanagatik eta lortutako emaitzengatik zoriontzarekin batera. Lan asko egin eta bere buruarengan izan-

dako konfiantzaren emaitza gisa definitzen du Oianak uda honetan lortutakoa, urte askoan itzalean burututako ahalegin eta sufrimenduaren emaitza gisa. Horregatik, Blanco zoriontzen duten guztiekin pozik ari da partekatzen lorpena.

Taldeari esker onez

Bere esanetan ordea, hemen ez dira amaitzen erronkak. Egunero badago eta, zer ikasi eta hobetua Oianarentzat. Eta gainera, horrek lotzen omen du judoko eguneroko jardunera. Lortu ohi dituzten emaitzak eta judo taldekoek erakutsi ohi duten maila aintzakotzat hartuta, euren lana gehiago errekonozitzea eskatu zuen Blancok harrera ekitaldian.



OIANA BLANCO, OPARITU ZIOTEN OROIGARRIA ESKUETAN DUELA.

Aginagako Paleta Goma Txapelketa

Aginagan jokoan den Paleta Goma Txapelketan partida ikusgarriak jokatu dira. Azken txanpan da txapelketa; final-erdiak ostegun honetan jokatuko dira, irailak 24, arratsaldeko 19:00etan.

Lehen finalerdian, Enrike Huizi-Haritz Zubiaur eta Aritz Urdanpilleta-Manuel Galarraga bikoteak arituko dira aurrez aurre.

Bigarren finalerdian, Imanol Esnaola-Xabier Errasti bikoteak partida honetako irabazlearen aurka jokatu beharko du: Josu Arruti-Jon Olaizola, Xabier Santxo-Iban Arrutiren aurka (astelehenean zen jokatzekoa partida hau).

Finalak urriaren 1ean izango dira, Aginagako pilotalekuan, arratsaldeko 18:00etan. Finalean ere, ezinduen paleta partida erakustaldi bat antolatu da eta baita emakumezkoen paleta goma partida bat ere.

Eskuzko txapelketa ere, azken txanpan

Aginagako esku pilotako final-erdiak irailaren 28an edo 29an jokatuko dira (oraindik zehazteko, albiste hau idazterakotan). Irailaren 22an jokatzeokoa ziren azken kanporaketak.

Finalak, ordea, badu eguna eta ordua finkaturik: urriaren 2a, gaueko 22:00etan.

Josue
Igeltseritza:
606 37 21 05
Atallu pol.28 USURBIL

URDAINTZI S.L.
eraikuntza
5443 3627 2644
649 4351 4751
649 4351 4751

BORDATXO
edaritegia
PINTXO BEREZIAK
Zubiaurrenea, 5
Telf: 943 37 10 42

Kale nagusia, 10
Telf: 943 37 33 48
943 37 09 13
Ondegia - Gozotegia
LABE-GOXO

Gero eta parte hartzaile gehiago

Parte hartzeak gorantz egin du pasa den igandeko Baxurde Krossean. Baita sari kopuruak ere, eguraldia lagun izan zuen kirol proban, lasterketa amaitu artean ateri eutsi baitzion. Jon Arozena irundarrak irabazi zuen proba. Jon Carbayeda eta Idoia Ezeiza etxekoen artean, helmugara ailegatzeko lehenak izan ziren.

Irailaren 20an ospatutako Baxurde Krossaren bigarren edizioak iazko parte hartze marka hautsi du, lasterkari kopurua hirurehunera gerturatu baita. Aurtengoan gainera, modu azpimarragarrian hazi da alde aurretik izena eman duten lasterkarien kopurua.

Kaxkoa, Santuenea, Zubieta eta Kalezar lotu zituen 10,5 kilometrotako ibilbidean zehar, lasterkari gazteekin batera helduen parte hartzea aipatu behar. Tartean ziren meriturik falta ez zuten 70 bat urte zituztenak. Edota ezkontzako despedidara joan aurretik txerriz mozorrotuta, lasterka egitera ausartutakoren bat. Helmugara tanta-



BAXURDE KROSSEKO PARTEHARTZAILEEK PROBATIK GEHIEN BALDRATZEN DUTEN ALDERDIA, SARI POTOLOEKIN BATERA, IBILBIDEA BERA IZAN OHI DA.

ka ailegatzeko ziren kirolarien artean berriz, herriko aurpegi ezagun ugari, lasterketaren azken metroetan txalo ugari jaso zituztenak.

Etxekoak, podiumetik gertu

Azkenean ordea, Jon Arozena irundarrak amaitu zuen garaile. Helmugara ailegatu ziren lehen usurbildarrak Idoia Ezeiza eta bosgarren

postuan sailkatutako Jon Carbayeda izan ziren. Aipagarria, proba amaieran banatu ziren sari potoloak, lehen hiru sailkatu gizonetzko zein emakumezkoen, lehen bi usurbildarren edota oro har, parte hartzaileen artean. Afariak, talasoterapiarako sarrerak, Zubeldia anaien maillotak, mariskadak, garrikurrak... Kirolariek pasa den irailaren 20ko goiza gustura buka zezaten.

Martxan da Gipuzkoako Pilota Txapelketa 09

Asteburu honetan hasiko da Gipuzkoako Pilota Txapelketa. Hauek dira partehartzaileak.

JUBENILAK banaka: Gorka Mendizabal, Imanol Zinkunegi, Julen Gesalaga, Markel Galarraga.

JUBENILAK binaka 2. maila: Gorka Mendizabal, Imanol Zinkunegi, Julen Gesalaga, Markel Galarraga.

NAGUSIAK binaka 3. mailan: USURBIL 1: Imanol Esnaola, Iban Arruti, Iker Zinkunegi, Josu Eguiguren

USURBIL 2: Enrike Huizi, Josu Ostolaza, Jon Olaizola, Iñigo Sorazu.

NAGUSIAK binaka 1. mailan: USURBIL 1: Xabier Errasti, Ander Domínguez, Julen Urruzola.

USURBIL 2: Jabier Santxo, Asier Portu, Asier Katalina, Aitzol Txapartegi.

NAGUSIAK banaka: USURBIL: Ibon Aranalde.

PALETA GOMA 3. maila: USURBIL: Josu Arruti, Jokin Zubiaur, Patxi Arruti.

PALETA GOMA 1. maila: USURBIL: Iñigo Huegun, Aritz Urdanpilleta, Mikel Arroio.

PALA, PALETA LARRUZ eta PALA MOTZA: Oidui Usabiaga, Xabier Zubeldia, Jon Arruti, Luis Iturzaeta, Eñaut Aizpuru.

UTZITA jokatu duena: JUBENIL 1. mailan: Xabier Santxok Hernani taldearekin jokatu du.

IRAILAK 24 OSTEGUNA
AGINAGAN 21:00ETAN
PALETA GOMA 1. maila
USURBIL- LOIOLATARRA 1

IRAILAK 25 OSTIRALA
AGINAGAN 18:30EAN
PALETA GOMA 3. maila
USURBIL - ALDE ZAHARRA

NAGUSIAK 1. maila
USURBIL 2 - BEHAR ZANA

IRAILAK 26, LARUNBATA
USURBIL 11:00ETAN
JUBENILAK 2. maila
USURBIL - ANTIGUAKO

NAGUSIAK 3. maila
USURBIL 1 - GAZTELEKU

NAGUSIAK 3. maila
USURBIL 2 - INTXURRE 1

Agenda !!

Irailak 25 ostirala

- "Grease" antzezlan, 22:30ean
Sutegin. Antolatzaileak: Txerriki, Udala.

Irailak 26 larunbata

- Aurora Parra kantariaren kontzertua, 19:00etan Sutegin.

Irailak 30 asteazkena

- Hitzaldia, Salvatore elizako organoa.
20:00etan parrokian bertan.

Eguneko goardiako farmaziak

Irailak 24, osteguna

Urbistondo, San Francisco 1, Lasarte

Irailak 25, ostirala

Orue, Jaizkibel plaza 2, Lasarte

Irailak 26, larunbata

Gil, Kale Nagusia 24, Lasarte
Oa, Kontseju Zarra 11, Usurbil*

Irailak 27, igandea

Gil, Kale Nagusia 24, Lasarte

Irailak 28, astelehena

De Miguel, Kale Nagusia 32, Lasarte

Irailak 29, asteartea

Rodriguez, Nagusia 42 atz Lasarte

Irailak 30, asteazkena

Gil, Kale Nagusia 24, Lasarte

Urriak 1, osteguna

Acha-Orbea, Hipodromoa 6, Lasarte

Urriak 2, ostirala

Urbistondo, San Francisco 1, Lasarte

Urriak 3, larunbata

Urbistondo, San Francisco 1, Lasarte
Iturralde, Borda Berri 1, Usurbil*

Urriak 4, igandea

Urbistondo, San Francisco 1, Lasarte

GOARDIAKO FARMAZIA, GAUEZ

Castilla Farmazia (22:00-09:00),
Urbietako kalea, 7 Hernani (943 552 941)

*Usurbilen, soilik eguerdira arte

Aurora Parra

sopranoaren kantaldia Sutegin

Aurora Parra abeslaria ibilbide interesgarria osatzen ari da. Donostiako Orfeoiarekin aritu izan da maiz eta, bakarka ere, hainbat kantaldi eskaini ditu. Larunbat honetan, Sutegira itzuliko da Javier Perez de Azpeitia piano jolearen laguntzaz. Pablo Sorozabal eta Jesus Guridiren obrak kantatuko ditu eta baita Kubako zarzuela bat ere.



LARUNBATEAN ESKAINIKO DUEN
KANTALDIA 19:00ETAN HASIKO DA.

Sutegin eskainiko duen erreperatorioan, Italiako bi obra izango dira, Pablo Sorozabalen "Ez dot sinesten" kantua eta Jesus Guridiren "Mirenchu" euskal operaren zati bat. Horretaz aparte, kubatar zarzuela bat abestuko du.

Kontzertua bi zatitan antolatu du Aurora Parra, baina atsedendia Javier Perez de Azpeitia pianojoleak

girotuko du.

Aurora Parra Donostiako Orfeoiarekin aritu da hainbat urtez kantuan, eta baita beste talde batzuekin batera ere. Aurten, eskolak emango dizkie Orfeoi Txikiko ikasleei.

Kontzertua larunbat honetan izango da, arratsaldeko 19:00etan Sutegin. Sarrera doan izango da.

Einean Guraso

Eskolaren ikastaroak

Einean Guraso Eskolak hainbat ikastaro antolatu ditu: laboreak, saloi dantzak, yoga, memoria lantzen, sukaldaritza, bitxigintza, eskulanak, sabel dantza. Izena emateko egun bakarra izango da, irailaren 25ean hain zuzen.

Izena emateko garaia

Tokia: Txaramunto, 1 (AEKko egoitzan, Zumarte ondoan).

Ordutegia: 10:00-11:00/17:00-19:00.

615 006 535 (17:00-19:00).

"Grease!" filmean

oinarritutako antzezlan

John Travolta eta Olivia Newton aktoreak gailurrera iritsi ziren "Grease!" pelikularekin. Geroztik, asko izan dira egin diren antzerkiak, musikalak... Lasarte-Oriako Landaberri Antzerki Eskolakoei antzerkira moldatu dute pelikula. Ostiral honetan Sutegin ikus ahal izango dugu antzerki musikatua.

"Grease!" antzezlan

22:30ean, Sutegin.

Zuzendaria: Mikel Sarriegi.

Sarrera: 1 euro, egunean bertan.

Enrique Alonso
ITURGINTZA-GASA-BEROKUNTZA
BAIMENDUTAKO INSTALATZAILEA
659 675 283
-Oro har libratze-lanak
-TB kamerakin hodi eta tximinien azterketa

ANTXETA
taberna-jatetxea
ogitartekoak
eguneroko menua
plater konbinatuak
EGUZKITZA, 4 USURBIL · 943 370 344

ETXEBIZITZA

- Pisu bila nabil Usurbilen. Alokairuan nahi nuke. 664 885 737.
 - 95 metro karratuko etxebizitza salgai Kaxkoan. Erreforma behar du baina aldaketak egiteko aukera asko. 135.500 euro. 671417240.
 - Gela argitsu bat alokairuan hartuko nuke. Tlf: 656 799 481.
 - Orion babes ofizialeko etxe bat daukat eta Usurbilen babes ofizialeko etxeren bat daukan norbaitekin aldatuko nuke. Interesatuak deitu 663600020.
 - 230 metro karratuko etxea salgai, 2 solairuko bordarekin. 2800 metro karratuko lursailean. Kalezarko eremu urbanoan. 665720913.
 - Bordaberri 3 kalean etxe bat daukagu salgai. 676910638.
 - Etxebizitza bat alokairuan hartu nahi nuke. Mesedez deitu: 697 807 403.
 - Baserri bat alokatu nahi nuke, Zubietan, Aginagan edo Usurbilen. 630 274 906.
 - Pisu bat salgai Kaxkoan, 3 logela, igogailua, balkoi luzeak eta ganbara dituen. Dena berriua eta amueblatua. 45.000.000 pta. 657 71 13 35.
 - Usurbilen etxebizitza salgai. 3 logela, sala, komuna, sukaldea, bi balkoi, igogailua, ganbara. Kaxkoan. 607 924 407.
 - Apartamentu-duplex rustikoa salgai. Zubietan Elizaren ondoan. 197.000 euro. 678084020.
 - Usurbilen bi logelako etxe bat daukagu salgai. 666 539284.
 - Etxe berria salgai kaxkoan. 3 logela, bainua, komuna,... eta trasteroekin. 685731792.
 - Logela bat alokatu nahi da etxe konpartitu batean. 671800275.
- Lasarten apartamentu bat salgai, egoera onean. Erdigunean. Toki lasaia eta berriua. Bitote batentzat egokia. 657708866

SALEROSKETAK / GARAJEAK

- Mendiko terreneoak erosiko nituzke. Basoa ateratzeko edo basorik gabea ere bai. 943362237.
- Atxegalden 33 metro karratu dituen lokal bat alokatzen da. Sarrera egokia. 943373414. 280 euro hilean.
- Motorra salgai. Peugeot Speedfight 3, 50 c.c. 2009ko maiatzekoa. Estrenatu gabe eta matrikulatu gabe. 1.800 euro. 655724125.
- Garaje bat alokatzen da Bizkarre kalean. Neurriak 2,5m x 5m eta 2,1 metrotako altuera. Interesatuak deitu 943361265.
- Peugeot 307a salgai. XS 2.0 HDI bersioa. 90 cv, 5 ate. 2002ko maiatzean matrikulatua, 149000 km ditu. Oso egoera onean dago. Korrea eta alternadore berriak ditu. Gris metalizatua, Parrot markako telefonorako esku-librearekin. 6000 euro negoziagarriak. 685725639.
- Usurbilgo industrialde batean 220 metro karratuko pabilo bat alokatzen da. 616926027.
- Mitsubishi Montero DI-D 3.2 GLS motza salgai.

- 148000Km, 6 urte. Tel.: 678636965
- 50cc-ko motorra daukat salgai. Aukera paregabea. 2 urte eta oso kilometro gutxi. Beti garajea, ondo zaindua. 622369646.
- Sotano komertzial bat alokatzen da 600 eurotan. 650938489
- Txoko polit bat alokatzen da. 650943847
- Atxegalden Aristitxo kalean 90 metro karratu (bi solairutan) dituen lokal bat alokatzen da. 658716970.
- Etxebeste kalean 44 m2-ko lokala alokatzen da. Interesatuak deitu: 943 36 12 19.

LANPOSTUAK

Lan-eskaerak

- Astebukaeratan lan egiteko, parrilarako pertsona bat eta beste bat zerbitzari moduan aritzeko behar ditugu. 943 36 67 10.

Lan-eskaintzak

- Pertsona helduak zaintzeko neska bat eskaintzen da. Esperientziaduna. 606 800 837.
- Mekanikari gisa, baserrian, edota helduak zaintzeko prest nago. 648 785 026.
- Emakumea interna edo goiz zein arratsalde orduka lan egiteko prest. 648 785 026.
- Emakumea interna edo goiz zein arratsalde orduka lan egiteko prest. 943 368 574.
- Emakumea interna moduan lan egiteko eskaintzen da. 608 098 941.
- Neska arduratsua etxeko lanak, haurrak zein pertsona helduak zaintzeko eskaintzen da. 699207750
- Zerbitzari, sukaldari laguntzaile edo garbitasun lanak egiteko neska bat eskaintzen da. 664048228
- Emakume bat haurrak zaindu edota orduka etxeko lanak egiteko prest. 943 575 788.
- Mendingi edo abeltzaintzan lan egiteko prest nago. 666 38 26 97.
- Emakume bat orduka edo interna moduan lanean aritzeko eskaintzen da. 608835033
- Matematika eta estatistika klaseak ematen ditut, edozein mailan, esperientzia handia. 646717676.
- Autoen mekanikari gisa lan egingo nuke. 943368574.
- Emakumea adineko pertsonak zaintzeko prest, interna moduan. 608 098 941.
- Etxeko lanak egiteko emakume bat eskaintzen da. 620185927.
- Arratsaldetan umeak zaintzeko neska euskaldun bat eskaintzen da. 685716774.
- Etxeko lanak egiteko neska bat eskaintzen da. 630768325.
- Neska bat eskaintzen da haurrak edo pertsona helduak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. 620 364 176.
- Emakume gazte bat lan bila dabil, orduka edota plantxan aritzeko: 630 438 571.
- Pintore edo burdinlari gisa lan egiteko prest nago. 654 217 752.
- Goizez haurrak zaindu edo etxeko lanak egiteko prest

nago. 616 376 591.

- Usurbilgo neska bat eskaintzen da etxeko lanak egiteko, portalak garbitzeko... Interesatuak deitu 21:00-23:00 edo kontestagailuan mezuaz utzi, 943 36 44 69. Esperientziaduna.
- Neska gazte esperientziaduna eta usurbildarra, arratsaldetan haurrak zaintzeko prest. 661 626 500 // 943 371 348.
- Fisika eta matematikako klase partikularrik emateko prest, neska gazte esperientziaduna. Lehen Hezkuntzatik Batxilergo mailara arte. 685 772 602 // 943 371 277.
- Etxeko lanak egiteko edo haur zein pertsona helduak zaintzeko eskaintzen da pertsona bat. 671884360.
- Neska bat eskaintzen da umeak zaintzeko zein etxekolanak egiteko. 679742413.

BESTELAKOAK / GALDUTAKOAK

- Atxegalden 30 metro karratuko lokal bat alokatzen da (lehen Truke denda zena). Interesatuak deitu 943373414 telefonora.
- Abuztuaren 9an, Elizan ingurutik San Inazio kale aldera urrezko eraztun (selloa) bat galdu genuen, MA jartzen duelarik. 657 71 13 35.
- Poltsa bat galdu da haurren arropa barruan zuela, Laurok kanpoan. Topatu baduzu, deitu mesedez: 943 373 117.
- Informatikoa naiz. Ordenagailuen edo informatikari buruz edozein zerbitzu behar izanez gero, deitu: Oskar: 609 46 87 59 / oskarsm@hotmail.com
- Maiatzak 8an Kodak markako kamara digital bat galdu genuen Kaxkoan. 678177129
- Ezkontzetan abesteko talde bokal bat nahi baduzu, deitu 665745071 (Iñaki)
- Artzabal inguruan maleta txiki bat, kotzeko bi DVDrekin aurkitu dugu. 656774127.
- Frantseseko klaseak ematen ditut Usurbilen. Astelehen eta asteartetan. Klaseak maiatzean hasita daude baina oraindik plazak daude. Informazio gehiago Laurok liburudendan.
- Belardiak behar dira belarra ontzeko: Usurbil, Lasarte edo Donostia inguruan. Danitaz galdetu. 607 457 004 / 943 36 60 40.
- Ohea egiten den 3 plazako sofa bat daukat salgai 125 euro. Kolore argia, txuri-beig kolorekoa. 655731915
- Ezkontza zein ekitaldietan abesteko kantari lirikoa. Interesatu bazaude maketa bat entzungai daukat. 690784113
- Arrue markako kotxe kapota bat salgai daukagu 250 eurotan. 6-8 hilabete arteko umeentzat egokia. 616586851.
- Etxebizitzaren erreforma orokorrak egiteko zerbitzua. Jon 672 173466.
- Pottokak salgai, kalifikatuak eta subentzia jasotzen ari direnak beraien moxal jaioberriekin eta urtebeteko behorra. 626 220925
- Argazki zaharrak txukuntzen dira. Baita bideoak editatu ere. 617 242 660/ zapore@euskalnet.net



Zorionak Araia!

Oso urruti egon arren ere ez gara zutaz ahaztu!! Bost muxu egalari Nuria eta bere lagun igelaren partez! Mua-mua!! Briki-briki!!



Zorionak Miriam!

Irailak 21ean 9 urte bete dituzu eta horregatik muxu handi bat eman nahi dizugu. Aginagako eskolako lagunok.



Zorionak Uxue!

Irailaren 21ean 10 urte bete zenituen. Oso ondo pasa genuen festan. Ondo segi, Aintzane eta Aitziberren partetik.

JOSETXO IKATZETA
Iturgintza
TEL: 943 36 20 26
687 95 12 25

Papera jartzea eta Pinturak orokorrean
FERNANDO PINTURAK
943 366 019
943 363 460
Kale Nagusia 1 - USURBIL

ERRAZKIN
Igeltseritza S.L.
Tel.: 649 435 470
Faxa: 943 372 679
K./ Nagusia 47. Behea A.
20170 USURBIL

ARRAINDEGIA
PELLO
Puntapax Kalea, 7
Tlf 36 21 64
USURBIL

Ondo pasa San Praixkuak!



Petronor

*E/S Aginaga
Guregas- Grupo-Gureak
N-634 P.K. 7,6 Aginaga*

GUREGAS
GRUPO GUREAK

**Eiza
denda**

Ondo pasa
SAN PRAIXKUAK!

Erribera 8, Aginaga
943 36 12 06

SEKAÑA




sekaña ERRETEGIA
ondo pasa San Praixkuak!

Aginaga auzoa • 20170 AGINAGA • ☎ 943 362 773



hamaikabat

www.h1usurbil.net